

PASARTE HAUTATUA

## Boris Vian Desertorea

Lehendakari jauna  
Otoi hartzazu astia  
Letzeko bidalia  
Dizudan gutuna

Goizean zait heldu  
Soldadutzako deia:  
Gerran behar dut lehia  
'ta nadila gertu

Jaun txit bihotzeko  
Ez dut gerrarik gura  
Ez naiz jaio mundura  
Inoren hiltzeko

Ez zaitze haserra  
Baina jakin ezazu  
Desertore noazu  
Ez dut maite gerra

Sortu naiz aidanez  
Aita luperatzeko  
Senideak uzteko  
Haur denak negarrez

Amak zenbat malko  
Bonben beldurrik gabe  
Harren beldurrik gabe  
Hilobian dago

Preso nintzelarik  
Neska zidaten kendu  
Nire arima irendu  
Ez dut iraganik

Bihar goizaldean  
Hementxe ate joka  
Urte ustelen tropa  
Baina ni bidean

Banoa eskeko  
Limosna baten galde  
Frantzian alde alde  
Ozen esateko:

Egiozu uko  
Gerrara ez joan inora  
Ez hadila enrola  
Ez zaik damutuko

Odolik behar bada  
O jaun gerrazalea  
Emantzazu zeurea  
Lehendakari jauna

Hona azken nota:  
Ez daramat armarik  
Jendarmek beldur barik  
Nazaten tiroka .



**Jatorrizko izenburua.**

*Le déserteur.*

**Itzultzailea.** Koldo Izagirre.

**Argitaratzailea.** *Armiarma.eus.*


## Argi-ilunak

Irati Majuelo

**A**modioaren poeta deitu izan zaio Sandro Penna italiarrari. Alabaina, bere poesian amodioa estuki lotuta ikus daiteke gaztetasunaren eta malenkoniaren edertasunarekin. Izan ere, begiradan aurki daiteke Pennaren poemen gakoak: ohiko egoerak aurkeztu ohi ditu, ohiz kanpoko tentsio nabari dutenak, poetaren eta dakusanaren artean begiradak azaleratzen dituen bizitzaren istante pizgarriak. Alex Gurrutxagak hitzaurre bikainean dion moduan, Pennaren «poema bakoitza bizitzaren zentesima zoragarri bat da; su txiki bat, ahulegia ari-maren euskarri izateko, baina bere baitan gordetzen duena bizitzaren indar erotikoz gurtia».

Edertasuna da poeta italiarrak ororen gainetik bilatzen duena. Edertasuna antzematen du eguz-

ki izprietan, jendetza anonimoa-  
ren aurpegietan, pixatokitako  
begiradetan, bizikleta albo batera  
utzi eta itsasoari begira dagoen  
mutikoan. Edertasun hori ahalik  
eta zuzenen adierazten du poema  
labur eta trinkoetan, metafora  
lausorik gabe, bere unibertso  
propioa osatzen duten hiztegi eta



**'Sandro Penna.  
Bilduma bat'**

**Idazlea:** Sandro Penna. **Itzultzailea:** Iñigo Astiz. **Ilustratzailea:** Damaris Pan. **Argitaletxea:** Farmazia Beltza.

## Nor ohiltzen ari?

### HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

**A**di: Basajaunaren ipuin hau sorkuntza berria da. Ez da garai bateko ipuinen berri-dazketa gaurkotua: hartu dira dagozkion ezaugarriak –hala nola basa izaera eta itxura–, eta bost ekinaldi laburreko kontakizun bat eraiki da, egitura ziklikoa duena, azken irtenbidera arte.


Irakurritz jasotzen den kontakizuna da, irudiz erabat jantzita badago ere. Testuak eramatzen du irakurlea, eta ilustrazioak aberasten, fiabartzen, edota emozioz indartzen du.

Proposamen naturazalea da, eta Basajaunaren erabilera proposa, pertsonaia aberasten laguntzen duelako. Orobait, ipuina, hainbat irakurketa maila dituelarik, hausnar-bide aberatsa izan daiteke.

Testua euskalkian idatzia dago,

euskara batutik urruntzeko pre-  
miarik ez dagoenean ere, oin  
oharrek salatzen duten gisan  
(testuan *droiari*, oharretan *deza-  
keat*; batuan *zezakeat*).

Ezaugarri guztiek naturaren eta tradizioaren miresle den obra osatzen dute, iduriz iragana miresiz geroaren eraiki nahiak pizteko. Alta, otsoen uxatzeko artzainak Basajauna behar duen gisan, euskarak txokokeriak urrun beharko ditu, irautekotan.



**'Basajauna'**

**Idazlea eta ilustratzailea:** Xantal Barneix-Elizagarai. **Argitaletxea:** Ikas.

elementuekin. Hala, behin eta berriz errepikatzen dira argia, zelaia, curia, ibaia, pixatokiak edo idortzea gisako kontzeptuak.

Edertasunarekin bat eginik, amodioa da –edo are sentsualitate– Pennaren poesiaren zentroa. Gizonaren erotika lantzen du, zenbaitetan modu xalo eta inuzentean, haragiaren gosetik gertu besteetan. Sutan pizten diren zelaiekin irudikatzen du sarri desira, eta amodioarekin bezainbeste lotzen du malenkoniarekin. Itresgarria da oso nola dakarren gizonaren gorputza eta desira poesiara. Era berean, eta desira horren fokua ume eta mutikoak direla aintzat hartuta, oso lausoa da erotikaren, sexuaren eta pedera-  
stiaeren arteko muga. Argi dago, tradizio homoerotiko oso baten parte dela, Thomas Mannen edota Pasoliniren ildoan, baina ezin uka daiteke gaur egungo perspektibatik begiratuta, lausotasun horrek ezinezona edota hazkura sortzen duenik. Idazlea bera kontziente da erotikatik harago esaten dituenek, eta anbiguotasun hori mahaigaineratzen du: «Ume ederrak nola edaten duen iturrian, / hala guk ere bekatu

egin eta ez egin.» Susma daiteke, idazten dituen poemetan argia gailentzen den gisan, iluna izkutatzen dela adierazten ez dituenetan.

Zentzu horretan, kuriosoan izan liteke itzulpena Iñigo Astizek egin izana, elizaren pederastia kasuei buruzko liburua argitaratu ostean. Hala ere, itzultzaileak begirada sakonago bat bilatu duela igartzen da, tradizio homoerotikoari bide eman, eta alde literarioa nabarmendu duela. Itzulpen fina eta beharrezkoa proposatzen digu alde horretatik Astizek, idazle baten begiradatik gustuz osatua eta mimoz zaindua. Halakoa da baita ere argitaletxeak hartutako lana, edizioa, ilustrazioak eta hitzaurrea bikainak baitira.

Hortaz, Gurrutxagak liburua-  
ren hitzaurre bikainean dion gisan, Pennaren poesiak dohai berezia du. Balio baitu zuk, irakurle, bizi dugun antsietatearen eta abiaduraren zurrumbilaoan, une bat hartu eta emateko. «Une horregatik idazten zuen Pennak, une horregatik itzuli du Astizek, une horregatik marraztu Pa-  
nek». Gozatu ezazu.

## Ikasten

### HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

**A**rreta pizteko zaila dauka objektu literario txiki honek liburudenden erakuslehoan, auzoan izan bide dituen kolore saturatuko eta dirdira itsugarriko proposamenen artean.

Egileak irabazia duen miresmena izan daiteke erakuslehoan itzaletatik irakurlearen begiak ernaraziko dituen gainbalioa. Edo, agian, erakusten duen estetika retro sarkorra.

Liburua kartoizkoa da osorik –azala zein barruko orrialdeak–, ezohiko moduan izan ere, hainbeste, ezen azala bera kontaketa-  
ren parte bihurtzen zaigun, inoiz baino gehiago.

Izenburuak argi dioenez, jantze-  
teari buruzko ipuina da, hegal to-  
lesgarrien bidez oker/zuzen jola-  
sarekin aritzen dena, protagonis-  
ta biluzik dagoenetik (bai, biluzik

agertzen da, natural-natural), ir-  
teerako atea zapata eta guzti ze-  
harkatzen duen arte. Guztira ha-  
mabi eszena.

Ezin ukatuko zaio premedita-  
zio eta lanketa falta, asmo narra-  
tibo-estetikoaren bidez azal baitai-  
teke objektu bakoitza, bai eta  
agertzeko modua eta unea ere.  
Esaterako, azala eta kontrazala  
biak batera ikustean, istorioaren  
narrazioari zein ekarpen egiten  
dioten oharrezan: kaixo, eta agur.



**'Badakit bakarrik jantzen'**

**Idazlea eta ilustratzailea:** Elena Odriozola. **Itzultzailea:** Juan Kruz Igerabide. **Argitaletxea:** Denonartean..